

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Soziolinguistikaren eremu semantikoa eratzten duten oinarriko terminoen esanahia ezagutu, eta ezagutza hori hizkuntza-errealitate jakinen interpretazioan aplikatu.	1.1 <b>Kontzeptu soziolinguistikoak</b> eta haien definizioak ezagutzen ditu.
	1.2 Testuetako <b>hutsuneak</b> betetzeko, emaniko <b>soziolinguistikako kontzeptuetatik egokiak hautatzen ditu.</b>
2. Fenomeno baten konponbide proposamenak eta horien kausa posibleak emanik, erlazio semantikoa dutenak hautatu.	2.1 <b>Esprikazio-egitura</b> duen testuan <b>identifikatzen ditu arazoa, arazoaren kausak eta arazoarentzako konponbideak.</b>
	2.2 Emaniko <b>kausa</b> eta ondorioekin <b>eskema grafikoa osatzen du.</b>
3. Emandako euskarrietatik finkatutako komunikazio-asmoaren arabera informazioa hautatu eta adierazi, dagokien egituraren arabera antolatuz.	3.1 Emaniko <b>testuen komunikazio-asmoa hautatzen du</b> eskainitako aukeretatik.
	3.2 <b>Hautua justifikatzeko</b> , emanikoetatik <b>arrazoi eta adibide egokiak hautatzen ditu.</b>
	3.3 <b>Komunikazio-asmoa</b> eta <b>haren isla den eskema grafikoa erlazionatzen ditu.</b>
	3.4 Emandako testuetatik zehaztutako <b>komunikazio-asmo bakoitzerako informazio egokia hautatzen du.</b>
	3.5 Emandako testuetatik hautatutako <b>informazioa egoki adierazten du eskema grafikoan.</b>
4. Elkarlanean ikerketa-plana egin eta ikerketa gauzatu, norberaren egitekoak arduraz eta eraginkortasunez betez.	4.1 Ikerketaren urrats bakoitzean <b>taldean hartu beharreko erabakietan eraginkortasunez parte hartzen du: bere ideiak eta sentimenduak askatasunez adieraziz, besteek errespetuz entzunez eta lanari eta gaiari lotuz.</b>
	4.2 Ikerketa burutzeko bere zereginak arduraz betetzen ditu, laguntza behar izan duenean eskatuz eta behar izan duenari eskainiz.
	4.3 Elkarlanerako hartutako <b>konpromisoak betetzen ditu</b> eta kideei haienak betetzen laguntzen die.
5. Hainbat iturritatik eskuratutako informazioa koherentziaz eta zuzentasunez adierazteko landutako baliabideak (hizkuntzakoak zein grafikoak) autonomiaz aplikatu, emandako testuetan nahiz norberak sortutakoan.	5.1 Landutako kalko okerren ondorio diren akatsak dituzten esaldiak eta horien baliokide zuzenak emanik, <b>esaldi zuzenak hautatzen ditu.</b>
	5.2 Landutako <b>kalko okerretatik eratorritako akatsak dituzten esaldien baliokide zuzenak idazten ditu.</b>
6. <b>Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa</b> aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	6.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak <b>gramatikalki zuzenak dira.</b>
	6.2 Idatzizko testuetan <b>ortografiari</b> erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.
7. <b>Ahozko tertulia literarioa</b> eraikitzea helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza-baliabide egokiak erabiliz.	7.1 Irakasleak emandako aukeren artean <b>irakurketa-liburu bat hautatzen du.</b>
	7.2 <b>Tertulia literarioetan</b> eraginkortasunez aritzeko <b>gidoi</b> bat prestatzen du.
	7.3 <b>Tertulia literarioa</b> egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.
	7.4 <b>Tertulia literarioa</b> osatzen du kideekiko <b>begirunea adierazten duten esapideak</b> txertatuz.
	7.5 <b>Esaldiak</b> osatzen ditu ideien arteko <b>kausa-ondorio erlazioa</b> edo <b>aurkaritza erlazioa</b> adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.